

Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA

## Joxan Ormazabal

**I**zenburuko izen-abizenak ikusita, irakurle gutxiak jakingo du nortaz ari naizen, gure lan-sektoretik kanpo. Eta hala ere, *Astoa ikusi nuen*, *Txorria nintzela* edo *Txi-meleta mendian* abestiak idatzi zituela esanez gero, besteak beste, ez da egongo adin batetik beherako euskaldunik Imanol Urbietak musika jarritako kantu horiek abestu ez dituenik, asto betaurrekodunarekin fubolean aritzearekin amets egin ez duenik. Ez dira gutxi izango, halaber, Tapia eta Leturia edo Imuntzo eta Belokirentzat idatzi zituen kantuen erritmora erromerietan dantzaz ibilitakoak: *Maitatzen zaitudalako*, *Estresa*, *Gizontxo gizentxo...*

Gure hedabideetako hemeroteketan hasiz gero Joxan Ormazabalen izenaren bila, bakanak izango dira topatuko ditugun elkarrizketak edo hari egindako erretratuak. Eta hala ere, hogeita hamar liburutik gora idatzi ditu, horietako batzuk nahi adina edizio izan dituztenak eta Euskal Herriko haur gehienek irakurriak; *Ilunorduak eta argilaurdenak* bere azken poema-bildumarekin nuen esperantza, Haur Literaturako Euskadi Saria emango ote zioten, baina ez da zorterik izan. Ez dio inporta ere, bera ez da inoiz inongo saritara aurkeztu nik dakidala, baina aukera polita izango zen nolabaiteko esker on publikoa erakusteko.



DANI BLANCO

Izan ere, bat behar bada, Joxantonio Ormazabal izango da euskal haur literatura modernoaren zutabe nagusia, horren aitortza sekula egin ez bazaio ere; berak idatzi dituen ipuin eta poemez gainera (bere izenean eginak batzuk, eta egiletza aipatu gabekoak beste hainbat), baditu taldelanean egindakoak ere (Mariasun Landarekin, adibidez); horrez gain, zientoka izango dira euskaratu dituen liburu eta liburuxkak, eta are gehiago editatu dituenak: haurrentzat idatzi dugun euskal idazle gehientsuenok izan dugu, noizbait, haren aholku eta laguntza.

Eta hala ere, Joxan ezagutzeko zortea izan dugunontzat, haren alderdirik azpimarragarriena ez da sortzailearena edo eragilearena. Haren umorea, haren eskuzabaltasuna, haren bihotz handia nabarmenduko genuke oroz lehen.

Despedida kutsua duten arren, hitz hauek ez dira, zorionez, hil osteo laudorio eta goresmenezkoak; erretiroa hartzerat doa Ormazabal, eta euskal kultura aberasten eta neska-mutilak alaitzen jarraituko duela espero badut ere, hogei urtean hurbil-hurbileko lankide izan dudaren konpainia galduko dut nik, haren txantxa eta xelebrekeriak, haren ateraldi eta sen jatorra: “Ez ahal zigutek dantzatutakoa kenduko, e, Joxan”. ■

« Joxan ezagutzeko zortea izan dugunontzat, haren alderdirik azpimarragarriena ez da sortzailearena. Haren bihotz handia nabarmenduko genuke oroz lehen »

## TXANDAN

Amatiño



...*Vardulia nunquam superata.*

Gipuzkoak izango du, atzenean, Arabak eta Bizkaiak bezainbateko Elkarte gaineke Zerga. Berbera gero. Urte bi besterik ez zaio parekatzea kostatu. Zer gerta ere, bi urte ez dira horratik gehiegi.

Bizkaiko beste zenbait egitasmorekin alderatuz gero, behintzat, ez larregi. Gogoan izan Bilboko kanpo portua 1998an egin zela, lehen ziklo konbinatuko gas-zentrala 2003an eta erraustegia, berriz, 2004an. Hau da, martxa honetan, Gipuzkoan baino 22, 17 eta 8 urte lehenago.

## Vardulia ...

Gipuzkoako aitaren etxeak defendatzaile asko omen ditu. Beldur naiz, ordea, horrenbeste zaunka egiten duen ezker abertzalea ez ote den gehiago jan-txakurra, ate-txakurra baino; Eusko Alkartasuna (EA) Euzko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) zer egingo begira da; jeltzaleen ustez etsai guztiak Madrilen daude eta sozialisten iritiz, oster... Bilbon. Eta, horren urruti joan beharrik gabe, mamuok Donostia inguruko mikro-klima estu-mestu horretan baleude?

Horri, orain, herrigintza esaten omen zaio. Lehen, eta Eibarren behintzat, firin-faran ibiltzea. ■